



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko abenduaren 2a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funtsaren zenbatekoa aldatzen duena 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (6. or.).
- Foru Lege proiektua, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (6. or.).
- Foru Lege proiektua, gizarteratze-errenta arautzen duena (7. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2010eko Kontu Orokorrei buruzkoa (13. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sartagudako Memoriaren Parkea eros dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da harreman diplomatiko normalizatuak mantentuzan Fronte Polisarioarekin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko aireportuaren erabileraren bideragarritasun errealarari buruzko plan bat presta dezan. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan jabari publikokoak diren era guztietako pista, bide eta errepedeetan oztoporik gabe ibili ahal izateko. Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da legeak ezarritakoa bete dezan Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari dagokionez. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie Erkidego Kurduen Batasunaren aurkako makroepailetan inputatutako pertsonen eta kurduen herriari oro har. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Iruñeko aireportuko terminal zaharrari erabilera emateko aukerei buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, AHTaren Cadreitako lanak inauguratzeari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egin dituen ekintzei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (21. or.).
- Galdera, prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspeni eta inbertsioari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Santiago Cervera Soto jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (23. or.).
- Amelia Salanueva Murguialday andreak foru parlamentari izaerari uko egitea (23. or.).
- Jorge Urdánoz Ganuza jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funttsaren zenbatekoa aldatzen duena 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funttsaren zenbatekoa aldatzen duen Foru Legea, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2011ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funttsaren zenbatekoa aldatzen duena 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENEA

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adina baliabide izan beharko dituzte legeak korporazioei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, nagusiki, beren tributu propioak izanez eta Estatuarenetan nahiz autonomia erkidegoenetan parte hartuz bilduko dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 259. eta 260. artikuluek Konstituzioaren testuak dioenaren antzerakoa diote, hau da, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaiela (259. art.) eta toki ogasunek finantzabide izanen dituztela beraiek jasotzen dituen tributuak eta Foru Komunitateko eta Estatu-ko tributueta parteaidetzak (260. art.).

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 2. artikulua ere hizpide ditu finantza arloko autonomiari eta nahikotasunari buruzko printzipio konstituzionalak, zeinak beharrezkoak baitira toki entitateek balia ahal ditzaten legeek esleitzen dizkieten eskumenak eta eginkizunak.

Legearen agindu horiek betetzearren, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legea onetsi zen, hau da, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta Parte Hartzeko Funttsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezarri zituena 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako.

Orobat, eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 61. artikuluan ezarritakoa garatuz, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea onetsi zen, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Planari buruzkoa; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen arteko lankidetzak ekonomikorako tresna gisa, udalen nahitaezko zerbitzuen estaldura bermatzea baitu funtsezko helburu.

Alabaina, ez Konstituzioak ez 6/1990 Foru Legeak ez dute ezartzen nahitaez errespetatu beharreko zenbateko zehatzik, ezta tributueta parteaidetzaren ehunekorik ere; legeok aipatzen dutena da, aldiz, finantzaketa-sistema bat, diru-sarreraren gorabeheren menpe egon daitekeena eta ezin dena gastua murrizteko neurrietatik kanpo gelditu, betiere administrazio publikoen arteko elkartasunaren ikuspegitik.

Segurua eta ukaezina da Nafarroako Ogasunak nabarmen gutxitu dituela diru-sarrerak mendebaleko ekonomietan eta, hortaz, Foru Komunitatean, eragina duen krisiaren ondorioz.

Bestetik, aurrekontuaren egonkortasunari buruzko araudia, abenduaren 28ko 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuak jasotakoa, Foru Komunitatean aplikatzekoa da, Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren ondorioz.

25/2003 Legeak Hitzarmen Ekonomikoa aldatu zuen, eta aurrekontuaren egonkortasun arloko lankidetzak eta koordinaziorako konpromisoak prestatzeko eta erabakiak hartzeko eskumena eman zion Koordinazio Batzordeari.

Esparru horretan sartu behar da Estatu-ko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen arteko

2010eko abenduaren 9ko Erabakia, defizitaren helburu bat ezarri zuena 2011ko, 2012ko eta 2013ko aurrekontu-ekitaldietarako; konpromiso hori, 2011. urterako, erkidegoko BPGren 100eko 1,3koa da, gehienez ere.

Esan den moduan, modu generikoan aipatzen dute bai Espainiako Konstituzioak, bai Nafarroako Foru Administrazioari buruzko Foru Legeak, Estata eta Foru Komunitatea behartuta daudela, tributuaren bidezko beren diru-sarreretan parte emanez, udal zerbitzuak mantentzen laguntzera; hau da, legeok ez dute zenbatekorik eta ehunekorik ezartzen, eta, beraz, bistakoa da ekarpen hori diru-sarreraren bilakaerari dagoela lotua, eta horien beherakadak eragina izan behar duela, nahitaez, ekarpenean.

Orobat, Konstituzioaren 135. artikuluan aurreikusitakoa hartu behar da kontuan, 2011ko irailaren 27an onetsitako aldaketan ezarri zen testua hain zuzen; izan ere, 1. idatz-zatian adierazpen orokor bat egiten du dioenean "administrazio publiko guztiek beren jarduketak aurrekontuaren egonkortasunaren printzipioari egokituko dituztela" eta, gero, zehatzago definitzen ditu irizpideak hurrengo idatz-zatietan, aurrekontuaren egonkortasun hori lortzearen.

Gutxitu egin direnez diru-sarrera ez-finantzarioak, aipatu defizit-konpromisoarekin batera aipatu direnak, beharrezkoa gertatu da gastua doitzeko politika bat, eta horren barrenean kokatzen da Toki Ogasunek Nafarroako Tributuaren Parte Hartzeko Funtsetan zenbatekoa aldatzen duena, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako.

Foru lege honetan egindako aldaketak eragina du bai transferentzia arruntetan bai kapitalarenetan.

Transferentzia arruntei dagokienez, 100eko 2,61eko murrizketa ezarri da 2011ko ekitaldiko funtsetan, eta 2012rako zenbatekoa Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak ekitaldi horretarako ezartzen duenaren menpe gelditu da.

Kapital transferentzietan dagokienez, zer ekitalditan aurreikusitakoa den eginen direla kontzeptu horrengatik ordainketak, ekitaldi horiei egotziko zaizkie kapital transferentziak, eta exekutatu gabeko kredituak diruzaintzako gerakin atxikitat joko dira. Orobat, Nafarroako 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean finkatuko da Toki Inbertsioen Planari lotutako kontusailen zenbatekoa.

1. artikulua. Transferentzia Arrunten Funtsetan murrizketa 2011ko ekitaldirako.

1. Toki Ogasunek Nafarroako tributuaren parte hartzeko funtsak 2011ko ekitaldian izanen duen

zenbatekoa, azaroaren 20ko 19/2008 Foru Legeak arautua, 100eko 2,61 murriztuko da kontzeptu hauetan: Transferentzia Arrunten Funtsetan Orokorra, Iruñeko Hiriburutzaren Gutuna eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzak.

2. 2011ko ekitaldiko laugarren ordainketa-aldian jaso gabe dauden kopuruaren eginen da murrizketa, kontzeptu hauetan: Transferentzia Arrunten Funtsetan Orokorra, Iruñeko Hiriburutzaren Gutuna eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzak. Horretarako, lehen aipatu ehunekoa aplikatuko zaio udal eta kontzeju bakoitzak urtean jaso beharreko guztirako zenbatekoari.

2. artikulua. Transferentzia Arrunten Funtsetan zenbatekoa 2012ko ekitaldirako.

1. Toki Ogasunek Nafarroako Tributuaren Parte Hartzeko Funtsetan zer diru kopuru izanen duen Transferentzia Arrunten Funtsetan Orokorra, Iruñeko Hiriburutzaren Gutunak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntzek eta zinegotzietan ordaintzeko Nafarroako udaletarako laguntzek, berariaz finkatuko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2012ko ekitaldiko Foru Legean.

2. Transferentzia Arrunten Funtsetan Orokorretan Iruñeko Udalari esleitzen zaion zenbatekoa ateratzeko, funts horren aldaketaren ehunekoa aplikatuko zaio 2011ko ekitaldirako hasieran esleitutako zenbatekoari.

3. Toki entitate bakoitzak Transferentzia Arrunten Funtsetan Orokorretan beste urte batzuetan jaso duenaren berme-klausula aplikatzeko, kontuan hartuko dena da udal eta kontzeju bakoitzak, transferentzia arruntetan, zer kopuru jaso dituen 2011n.

4. Karguan aritzegatik udalek egindako ordainketak berdintzeko helburuz udal bakoitzari egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, kontuan hartuko da kontzeptu hori finantzatzeko duen kontusailak izan duen aldaketaren ehunekoa, 2011ko zenbatekoa oinarri hartuta, eta ehuneko hori da zinegotzietan kopuruaren tarte bakoitzari aplikatuko zaiona.

5. Zinegotzietan kopurua 2011n aldatu eta haien gastuak konpentsatzeko dagoen diruan defizitik gertatuz gero, eta banaketa egin aurretik, doitu eginen dira jaso beharreko gehieneko kopuruak, 2012ko aurrekontuan helburu horretarako onetsitako hasierako kredituaren arabera hain zuzen.

3. artikulua. Kapital Transferentzietan Funtsetan konpromisoak nola egotzi.

1. 2011ko ekitaldian hartutako konpromiso ekonomikoak, baldin eta foru lege honek indarra duela

hartuak badira, bai eta hurrengo ekitaldietan hartutakoak ere, dagozkien ekitaldi ekonomikoei egotziko zaizkie, hau da, kontuan hartuta zein den Toki Inbertsioen Plana erregulatzen duen araudia aplikatetik ateratzen den ordainketen aurreikuspen erreala.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa betez, aurrekontu-ekitaldi bati baino gehiagori egozten bazaizkio konpromiso ekonomikoak, gastu horiek, ondorio guztietarako, urte anitzeko gastu gisa hartuko dira.

4. artikulua. 2011ko ekitaldiko Kapital Transferentzien Funtsa ez exekutatzea.

2011ko ekitaldian defizita murrizteko neurriak aplikatzearen ondorioz exekutatu gabe gelditu diren kredituak, Toki Inbertsioen Planari lotutako kontusailletako kapital transferentzietan dagozkienak, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko dira.

5. artikulua. Kapital Transferentzien zenbatekoa, 2012ko ekitaldirako.

1. Nafarroako 2012ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean finkatuko da Toki Inbertsioen Planari lotutako kontusailek zer zenbateko izanen duten 2012. urtean.

2. Toki Inbertsioen Planean eta horren hedaduran, hau da, Toki Inbertsioen Plan Berezian sartutako obra guztiak, baita presa nabarmeneko prozeduraren babesekoak ere, baldintzak betetzen badituzte eta Toki Inbertsioen Plana erregulatzen duen araudian ezarritako prozedurak osatzen, batera finantzatuko dira 2012ko aurrekontuaren kargura eta dagokion ekitaldiari aplikatzen ahal zaion diruzaintzako gerakin atxikiaren kargura.

Xedapen gehigarri bakarra. Baimenak.

Baimena ematen zaio Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariari behar diren aurrekontuko jarduketa eta doikuntza guztiak egiteko, foru lege honetan aurreikusitakoa bete dadin.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Bildu-Nafarroa, Izquierda-Ezkerra eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2011ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2011ko azaroaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Bildu-Nafarroa, Izquierda-Ezkerra eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2011ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, gizarteratze-errenta arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2011ko azaroaren 23an hartutako erabakiaren bidez, gizarteratze-errenta arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Gizarteratze-errenta arautzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 2011ko abenduaren 15eko hamabietan bukatuko dena**, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak osoko zuzenketak aurkeztu ahal izateko, eta beste **epe bat, 2011ko abenduaren 29ko hamabietan bukatuko dena**, artikuluei zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Gizarteratze-errenta arautzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

1

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44. artikuluan, eskumen osoa ematen dio Foru Komunitateari gizarte laguntzaren arloan, eta, horretaz baliatuz, Nafarroako Parlamentuak Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen. Foru lege horretan laguntza ekonomikoak aurreikusi ziren, bazterturik dauden pertsonen integrazioa edo gizarteratzea bultzatzeko neurri gisa.

Ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuaren bidez, gizarte zerbitzuen arloko banakako prestazioak nahiz familientzakoak arautzen dira, eta Foru Komunitatean estreinako ezartzen da oinarriko errentaren prestazioa, honela definituta: pertsona bakarreko familietarako eta familia-unitateetarako prestazioa, lehentasunezko premiei aurre egitea bermatzen duten zenbait diru-sarrerara jasotzea helburu duena.

Nafarroako Gobernuak egin eta 1999ko otsailaren 5ean Parlamentuak berretsi zuen Gizarte Bazterketaren aurkako Planak ezartzen duenez, beharrezkoa da oinarriko errenta egokia, haren premia duten familia nafarren ezaugarriekin bat datorrena, muturreko pobrezia pairatzen duten familientzako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko, horiek gabe nekez emanen baitira aurrerapausoak familia horietako kideen gizarteratzean.

Ildo berean, Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak nafar guztientzako oinarriko errenta aldarrikatzen du, eskubide guztiez osotara baliatu ahal daitezkeen. Legearen artikuluetan, oinarriko errenta horren zenbatekoa ezartzen da, eta, horrekin batera, hartzaileek izanen dituzten betebeharrak ere bai; halaber, Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio legearen edukia garatzeko, eta hala egin zuen, Oinarriko Errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuaren bidez.

Geroago, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak prestazio bermatutzat hartu zuen oinarriko errenta, hau da, errenta hori jasotzeko baldintza berariazkoak betetzen dituzten pertsonen eskubide subjektibotzat eta, beraz, Administrazio Publikoari exijitzeko modukotzat.

Azkenik, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak eta Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatu zuen uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legeak osatu dute, gaur arte, prestazio hau Nafarroako Foru Komunitatean arautzeko testu multzoa.

2

Prestazio hau gizartean bazterturik dauden pertsonen arreta emateko xedearekin sortu zen, pertsona horien oinarri-oinarrikoak diren premiei erantzuteko baliabide gisa, beraiei eta beren familia-unitateei gizarteratzen laguntzeko; egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, ordea, aldaketak gertatu dira helburuari eta hasieran aurreikusitako hartzaileei.

leei dagokienez. Oinarrizko errenta berriki jasotzen hasi direnetako askok ez dute jasotzen prestazioa gizartean bazterturik egoteagatik, lana galdu eta langabeziaren prestazioak eta sorospen guztiak ahitu zaizkielako baizik.

Oinarrizko errenta modu koiunturalean jasotzen duten pertsona hauei, inolaz ere "baztertu sozialak" ez baitira, gizarteratzean erabiltzen direnez bestelako tresnak eman behar zaizkie, tresna ahalik eta egokienak benetan eskatzen dutena lortzeko, laneratzea edo beren enplegu aukerak hobetzea alegia, eta pertsona horien egoera, beraz, foru lege honen aplikazio esparrutik kanpo dago.

Egungo errealitate sozialak oinarrizko errentaren prestazioaren programa birmoldatzea eskatzen du, eta berresten beharrezkoa dela arau aldaketa bat, prestazioak jasoko dituzten gizatalde desberdinei zuzendutako bi ibilbide ezartzeko. Bata, gizartean bazterturik dauden familia-unitateentzat, oinarrizko premiei erantzuteko eta gizarteratzen laguntzeko helburua izanen duen prestazio ekonomiko bat jaso dezaten, eta bestea, langabezian eta laneko prestazio eta sorospenik gabe gelditu diren pertsonentzat. Sistema zuzen eta justua goa bilatzea da asmoa, errealitate sozial berrirako egokia, elkartasun iraunkorraren eta ekitatearen printzipioak betetzeko.

Inguruabar horiek direla eta, oinarrizko errentaren prestazioa arautu eta eguneratuko duen arau berri baten beharra dago; aurrerantzean gizarteratze-errenta izanen da, gizartean bazterturik dauden Nafarroako bizilagunen beharrei erantzuteko xedearekin.

Horrenbestez, gizarteratze-errentaren prestazioari buruzko arau honek jasotzeko baldintzak ezartzen ditu, berariaz definitzen ditu prestazioaren aplikazio esparruan sartutako kontzeptuak eta egoerak, prestazioa salbuespeneko izaeraz jasotzeko irizpideak arautzen ditu, eta onuradunen eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu.

Era berean, foru legean jasotzen den Gizarteratze Akordioaren inguruan berritasun aipagarri bat dago, aurreko arauarekin alderaturik, hemendik aurrera Gizarteratze Akordioaz gain Gizarteratze eta Laneratze Akordia ere izanen baita. Gizarteratze Akordia, batetik, gizarte bazterketa modu iraunkorrean pairatzen duten pertsonentzat, edo gizarteratzea laneratzearen bitartez bideratzerik ez dagoela irizten zaionean; eta Gizarteratze eta Laneratze Akordia, bestetik, egoera horretan aldi baterako dauden pertsonentzat, hau da, laneratze-ko ekintzen bidez egoera gainditzeko moduan daudenentzat.

Egiturari dagokionez, foru legeak bi kapitulu ditu: lehenbizikoan gizarteratze-errentari buruzko xedapen orokorrak daude: prestazioaren xedea eta izaera; onuradunak; jasotzeko baldintzak; zenbatekoak eta aldiak; onuradunak Gizarteratze Akordioaren bidez bere gain hartu behar dituen betebeharrak; eta azkentzeko arrazoiak. Bigarrenean, berriz, gizarteratze-errentarako zehapen araubidea arautzen da; bertan, foru legean tipifikatutako arau-hausteak, ekintzak edo ez betetzeak eta zehapenak berariaz egokitzen zaizkie prestazio honen arloan gertatzen diren portaera antijuridikoei, eta ez da beraz beti aplikatzen Gizarteratze Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean ezarritako zehapen araubidea, zeina aplikatzen baitzaie nagusiki foru lege horren aplikazio esparruaren barruan dauden entitate publiko eta pribatuek izandako jarduketa antijuridikoei; nolana ere 15/2006 Foru Legeak izaera osagarria izanen du bestean aurreikusi gabeko kasuetarako, eta zehapen prozedurak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritako bide orokorrak beteko ditu.

Foru Legearen funtsezko helburua da gizarteratze-errenta prestazio zuzenagoa izatea, gizarteraren behar eta eskari berrietara egokitua, eta segurtasun juridikoa areagotzea hura jaso eta tramitatzean, bai eta zehapen araubidea aplikatzean ere.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Prestazioaren helburua eta definizioa.

1. Foru lege honen xedea da aldizkako prestazio ekonomiko bat, gizarteratze-errenta izenekoa, arautzea; prestazioaren helburua da gizartean bazterturik dauden familia-unitateen oinarrizko beharrei erantzutea eta haiek gizarteratzen laguntzea.

2. Gizarteratze-errenta indarreko legeetan aurreikusitako beste edozein motatako baliabide edo prestazio ekonomikoen osagarria eta subsidiarioa da, eta horiek osotara erabili beharko dira gizarteratze-errentaren eskaera egin aurretik.

3. Prestazio bermatu hau foru lege honetan eta bere aplikazio eta garapenerako xedapenetan ezarritako irispen eta baldintzekin onartuko da, eta indarreko lege antolamenduarekin bat.

2. artikulua. Prestazioaren hartzaileak.

1. Prestazioaren hartzaileak izanen dira gizarteraren bazterturik dauden eta foru lege honetan eta

bere garapenerako erregelamenduzko xedapen-tan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten familia-unitateetako kideak.

2. Oro har, familia-unitate bakoitzak gizarteratze-errenta bakarra jaso ahal izanen du.

Helbide berean bi familia-unitate edo gehiago bizi badira, aldi berean emandako prestazioen batura ez da izanen kide kopuru bereko familia-unitate bakar bati legokiokeenaren halako bat eta erdi baino handiagoa. Zenbateko hori batera bizi diren familia-unitateen artean hainbanatuko da, unitate bakoitzeko kide kopuruaren arabera.

3. artikulua. Prestazioa jasotzeko baldintzak.

1. gizarteratze-errenta jasotzeko baldintzak erregelamenduz ezarriko dira, eta gutxieneko hauek eskatuko dira:

a) Hogeita bost urtetik gorakoa eta hirurogeita bost urtetik beherakoa izatea.

b) Legezko bizitokia Espainiako lurraldean izatea .

c) Nafarroan bizitokia izatea, jarraian eta egiazki, eskaera aurkeztu baino lehenagoko hogeita lau hilabeteetan gutxienez

d) Familia-unitatearen azken sei hilekoko baliabide ekonomikoak hilean legokiokeen gizarteratze-errentaren zenbatekoa baino txikiagoak izatea.

e) Aldez aurretik eskatu izana eskumena duen edozein administrazio publikotan zuzenbideari jarraikiz legozkiokeen laguntzak, pentsioak, prestazioak edo sorospinak, edozein motatakoak, mantenu eta/edo konpentsazioko pentsioak ezarri eta ordaintzeko legezko ekintzak betetzea barne.

2. Salbuespen gisa, gizarte politikaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak emandako foru agindu bidez, eta espedientean objektibotasunez justifikatutako arrazoiengatik, beste pertsona batzuk ere prestazioaren hartzaile izan ahalko dira, baldin eta, haien familia-unitateek a) eta d) baldintzak bete gabe ere, premia egoeran gelditzea eragin duten inguruabarrak badaude, erregelamenduz zehaztuko direnak.

4. artikulua. Zenbatekoak.

1. Gizarteratze-errentaren prestazioaren zenbatekoa zehazteko, erlazioan jarri beharko dira errentak ezarriak dituen zenbatekoak, familia-unitatearen diru-sarrerak eta familia-unitateko kideen kopurua; horretarako, eskala honi jarraituko zaio:

a) 1 pertsona: 641,40 euro gehienez.

b) 2 pertsona: 769,68 euro gehienez.

c) 3 pertsona: 833,82 euro gehienez.

d) 4 pertsona: 897,96 euro gehienez.

e) 5 pertsona edo gehiago: 962,10 euro gehienez.

Gizarteratze-errentaren zenbatekoa, hortaz, familia-unitatearen hileko baliabide ekonomikoak aurreko kopuru horiek aplikatuta ateratzen den emaitza iritsi arte osatzeko behar den kopurua izanen da.

2. Gizarteratze-errentaren gehieneko zenbatekoak urtero finkatuko dira Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean, eta gutxieneko zenbatekoak erregelamenduz ezarriko dira.

3. Gizarteratze-errenta jasotzen hasi eta hamahirugarren hilabetetik aurrera, eta gehienez ere hogeita lau hilabeteetan, prestazioaren zenbatekoak hileko baliabide ekonomikoak osatuko ditu, familia-unitaterako artikuluko honen 1. idatz-zatian aurreikusitako zenbatekoaren % 90eraino.

5. artikulua. Jasotzeko aldia.

1. Gizarteratze-errenta gizarte politikaren arloko eskumena duen departamentuak emanen du, sei hilabeterako, oro har, baina aldi horiek berritu ahal izanen dira, gehienez ere hogeita lau hilabete egin arte.

2. Salbuespen gisa, gizarte politikaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak emandako foru aginduaren bidez, aurreko idatz-zatian ezarritako aldi edo epeak gainditu ahal izanen dira salbuespeneko arrazoiak daudenean edo bazterketa egoera finkatua denean, betiere, erregelamenduz aurreikusitako egoerak badira.

Hogeita lau hilabete iraganik, epeak salbuespeneko izaeraz berritzen badira, prestazioaren zenbatekoak hileko baliabide ekonomikoak osatuko ditu aurreko artikuluko 1. idatz-zatian familia-unitatearentzat aurreikusitako zenbatekoaren % 80eraino.

6. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

Gizarteratze-errentaren prestazioaren hartzaileek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) gizarteratze-errenta zertarako eman zaien, hartarako erabiltzea.

b) Dituzten baliabideak arduraz administratzea, egoera ekonomikoa edo bazterketa larriagotu ez dadin.

c) Bizitokia Nafarroan izatea, jarraian eta egiazki, prestazioa jasotzen den denbora gutzian.

d) Familia-unitateko adingabeak eskolatzea eta ziurtatzea ikastetxeetara joaten direla modu aktiboan, jarraituan eta etengabe, nahitaezko hezkuntzaren etapan.

e) Gizarteratze Akordioa izenpetu eta betetzea.

f) Prestazioa jasotzen den aldi osoan, eskatzaileari nahiz familia-unitateko edozein kideri legozkiokeen prestazio ekonomikoetarako eskubide oroz baliatzea.

g) Lanerako prest egotea, bai titularra bai prestazioaren gainerako onuradunak ere, lanerako adina dutenak, salbu eta, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta/edo gizarte eta laneratzeko taldeen iritziz, lan merkatuan sartzeko egoeran ez dauden kasuan.

h) Oinarritzko gizarte zerbitzuetako eta arlo honetako eskumena duen departamentuko profesionalak, bere egoeraren jarraipena egiteko deituz gero, elkarrizketara joatea, Gizarteratze Akordioan adierazitako maiztasun eta baldintzekin.

i) Erregelamenduz aurreikusten diren betebeharrak guztiak.

7. artikulua. Gizarteratze-Akordioa

1. Gizarteratze-errenta emateko, beharrezkoa da gizarteratze-akordio bat izenpetzea; bertan jasoko dira gizarteratze-errentaren hartzailleek bere gain hartutako konpromisoak, batetik, eta Administrazio Publikoak gizarteratzeko edo gizarteratu eta laneratzeko ibilbidea egiten laguntzeko emanen duen sostengua.

2. Gizarteratze Akordioa gizarteratze hutsekoa edo gizarteratu eta laneratzekoa izan daiteke, prestazioaren hartzaille den familia-unitateko kideen ezaugarriak, beharrak eta aukerak kontuan hartuta, eta Akordioan aurreikusitako helburuen arabera.

3. Gizarteratze eta gizarteratu eta laneratzeko akordioen edukiak eta horiek izenpetzeko epeak erregelamenduz garatuko dira. Gizarteratze Akordioan jaso ahal izanen da, onuradunen betebeharren artean, lankidetzaren jardueretan, borondatezko lanaren zerbitzuetan eta gizartearen onurako bestelako jardueretan parte hartzekoa.

8. artikulua. Prestaziorako eskubidea azkentzea.

Gizarteratze-errentaren prestazioa arrazoi hauetako bategatik azkenduko da:

a) Eman zen aldia amaitzeagatik.

b) Prestazioa emateko aintzat hartutako baldintzak aldatzeagatik, halako moduan non onuraduna prestazioa jasotzeko eskatutako baldintzetatik kanpo uzten baitute.

c) Gizarteratze Akordioa ez bidaltzeagatik, behar bezala beteta, gizarte politikaren arloko eskumena duen departamentuko kasuan kasuko unitate administratibora.

d) Gizarteratze Akordioa ez betetzeagatik.

e) Prestazioa jasotzeko eskatzen diren inguruabarrei edo baldintzei buruz behar diren datuak ezkatzeagatik edo okerreko informazioa emateagatik.

f) Borondatezko baja edo lan eszedentzia hartzeagatik, edo lan eskaintza bati uko egiteagatik prestazio jasotzen duen aldiaren.

g) Ezarritako betebeharrak edo baldintzetako bat ez betetzeagatik.

h) Erregelamenduz aurreikusten direnak.

II. KAPITULUA **Zehapenen araubidea**

9. artikulua. Subjektu erantzuleak.

Kapitulu honetan tipifikaturiko arau-haustetzat har daitezkeen ekintzak edo ez-betetzeak egotzi ahal zaizkien pertsona fisikoak dira subjektu erantzuleak.

10. artikulua. Arau-hausteak.

1. Prestazioaren hartzailleek ekintzak edo ez-betetzeak arau-hausteak dira lege edo erregelamenduzko araudiaren kontrakoak direnean, foru lege honetan tipifikatu eta zehatutakoak. Arau-hausteari zehapena ezarri aurretik, dagokion prozedura tramitatu beharko da.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

11. artikulua. Arau-hauste arinak.

Honako hauek arau-hauste arinak dira:

a) Prestazioaren titularraren helbidean, jasotzen diren diru-sarreretan edo familia-unitateko kideetan gertatutako edozein aldaketaren berri emateko beharkizuna ez betetzea, aldaketa horiek ez badute gizarteratze-errenta bidegabeki jaso, aldatu edo gordetzea eragiten.

b) gizarteratze-errenta jasotzeko baldintzak ez direla betetzen jakinik ere, hura eskuratu edo gordetzeko xedea duten ekintzak, ekintzen ondorioz asmoa lortzen ez denean.

c) Errentaren hartzailleak prestazio eta zerbitzuetarako ezarritako arauak, betebeharrak, prozedurak eta baldintzak ez betetzea, eta Gizarteratze Akordioan ezarritako programari eta gizarte zerbitzuetako profesionalen orientabideei ez jarraitzea,

halako moduan non esku-hartze sozialaren xedea aldatzen den.

d) Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 85. artikularen c) eta d) letretan aurreikusitako arau-hauste arinak.

12. artikulua. Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak hauek dira:

a) Arau-hauste arina berriz egitea.

b) gizarteratze-errenta jasotzeko baldintzak ez direla betetzen jakinik ere, hura eskuratu edo gordetzeko xedea duten ekintzak, ekintzen ondorioz prestazioetakoren bat bidegabeki jasotzen bada, ustezko arau-hauslearen ezaugarriak dituen familia-unitate bati, urtean, gizarteratze-errenta gisa legokiokeen gehieneko zenbatekoaren % 100 edo gutxiago kobratuta.

13. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Arau-hauste larria berriz egitea.

b) gizarteratze-errenta jasotzeko baldintzak ez direla betetzen jakinik ere, hura eskuratu edo gordetzeko xedea duten ekintzak, ekintzen ondorioz prestazioetakoren bat bidegabeki jasotzen bada, ustezko arau-hauslearen ezaugarriak dituen familia-unitate bati, urtean, gizarteratze-errenta gisa legokiokeen gehieneko zenbatekoaren % 100 baino gehiago kobratuta.

14. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste arinei dagokien zehapena ohar-tarazpena edo 100 eurotik 300 eurora bitarteko isuna izanen da, edo gizarteratze-errentaren prestazioa epe batez jasotzeko debekua, sei hilabete-tik urtebetera bitarte.

2. Arau-hauste larriei dagokien zehapena 300 eurotik 1.000 eurora bitarteko isuna izanen da, eta/edo gizarteratze-errentaren prestazioa epe batez jasotzeko debekua, urtebetetik bi urtera bitarte.

3. Arau-hauste oso larriei dagokien zehapena 1.000 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna izanen da, eta gizarteratze-errentaren prestazioa bi urtetik hiru urtera bitarteko epean jasotzeko debekua.

4. Artikulu honetan aipatzen diren zehapenez gain, bidegabeki jasotako kopuruak itzuli beharko direla ulertzen da.

15. artikulua. Araubide osagarria eta zehapen prozedura.

1. Foru lege honetan aurreikusirik ez dagoen guztian, izaera osagarriaz aplikatuko da Gizarte

Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean aurreikusitako zehapen araubidea.

2. Foru lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoa izanen da, erregelamenduz ezar daitezkeen berezitasunak galazari gabe.

Lehen xedapen gehigarria. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen eta Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko araudia- ren aldaketa.

1. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 20. artikuluko b) letra aldatu eta honela geldituko da:

“b) Gizarteratze-errentaren prestazioa”

2. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko arau- etan oinarritzko errentaren prestazioari buruz dau- den aipamen guztiak gizarteratze-errentaren pres- tazioari buruzkoak direla ulertuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Espedienteen tramitazioa.

Foru Komunitateko Administrazioak kudeaketa informatikorako eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzue- kin koordinatzeko tresna berriak diseinatzeko behar diren jarduketak sustatuko ditu, espediente- ak arinago tramitatu eta arauetan horretarako eza- rritako epeak betez ebazteko.

Xedapen iragankor bakarra. Prestazioak eskatzeko aldi baterako araubidea.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenean tramitean diren oinarritzko errentaren eskaerak arau horretan xedatutakoari jarraikiz ebatziko dira, eta, beharrezkoa bada, tramitatzeko dokumentazio osagarria eskatuko da.

2. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, oinarritzko errentaren hartzaileek gizar- teratze-errentaren prestazioak berritzeko egiten dituzten eskaerak arau honetan ezarritakoaren arabera tramitatu eta ebatziko dira, salbu eta jarraian eta egiaz bizitokia izateko betebeharra, foru legearen 3. artikuluko c) letrakoa, hemezortzi hilabetekoa izanen baita.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak. Zehazki, berariaz indarrik gabe gelditu dira Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legearen III.

titulua, "Oinarrizko Errenta," eta Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren I. eranskinean, bermatutako prestazioei buruzkoan, F arloko 7. atala, oinarrizko errentari buruzkoa.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

1. Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez onetsiko du gizarteratze-errentaren gaineko erregelamendua.

2. Gizarteratze-errentaren prestazioaren gaineko erregelamendua garatuko duen foru dekretuak indarra hartu bitarte, foru lege honen 3. artikulua-ren 2. idatz-zatian eta 5. artikuluan aurreikusitako

salbuespenak, prestazioa jasotzeko baldintzei eta prestazioa jasotzeko gehieneko epeari dagozkienak, hurrenez hurren, foru agindu bidez ezarriko ditu Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriaren kontseilariak.

Azken xedapenetan bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2010eko Kontu Orokorrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 14an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2010eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman du, 2011ko azaroaren 10eko 27. Nafarroako Parla-mentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako 2010eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako 2010eko Kontu Oroko- rrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabai-datu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets dai-tezen, hori guztia foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatu-tako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2010eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako izapi-deak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta izapidetua dago Nafarroako 2010eko kontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuari buruzko Erregelamenduen 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hau onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2010eko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Haien edukia Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian (www.navarra.es) eta honako agiri eta euskarriotan bildu da:

– Paperezko argitalpen batean, non kontuak osatzen dituzten argibideen atalik nabarmenenen edukia eta laburpena azaltzen baitira: kontuak osatzen dituzten erakundeen aurrekontuetako likidazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen alderdirik nabarmenenak. Sozietate publikoen kontuen laburpena dakarren agiria ere erantsia dago.

– Euskarri digital batean, non entitate eta sozietate publikoen kontuak modu luzean eta haien auditoretza-txostenak ageri baitira. Aurrekontuetako programen oroitidazkiak ere sartuta daude euskarri horretan.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sartagudako Memoriaren Parkea eros dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sartagudako Memoriaren Parkea eros dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Memoriaren Parkea herritarren, oroimen historikoaren elkarteen eta herritar anonimo eta senitarteko asko eta askoren ekimenez sortu zen.

Erakundeek amore eman dute egia, justizia eta ordaina erdiesteko eskariaren indar geldiezinaren aurrean; halatan, urteetan geroko utzitako ekimena babestera heldu dira erakundeak, omenaldi-ekimenaren indarrari amore emanda. Halere, eremu publikotik heldu diren laguntza ekonomikoek ez dituzte asetzen halako munta handiko proiektu baten beharizan alimaleei.

Alargunen Herriko Elkarte eta Nafarroako Fusilatu, Eraildako eta Desagertuen Senitarteko

Elkarte (AFFNA, 1936) dira parkearen sustatzailerak. Beste elkarte eta partikular batzuek ere hauspotu eta bultzatu dute obra hori lortu ahal izateko eta orain nahiz etorkizunean obra balioztatzeko, sentsibilizazioa, omenaldia eta oroimen kolektiboa helburu.

Oroimenaren parkea 2008ko maiatzaren 10ean inauguratu zen, bertan milaka pertsona zeudela.

Hiru urte igarota, beste urrats bat egiteko unea dugu gaur, parke hori guztion topagune bihurtu dadin. Hortaz, uste dugu behar-beharrezkoa dela parkeak jabe bakarra izatea.

Oroimenaren parkea, batetik, oroitzapenerako eta omenaldirako toki bat da. Pentsatzeko, hunkitzeko, paseatzeko toki bat. BAina, bestetik, zaindu beharreko eta zaintzea merezi duen eremu artistiko bat ere bada. Han, balio eta edertasun handiko obrak ikusi eta gozaten ahal ditugu, hala nola José Ramón Anda, Joxe Ulibarrena eta Nestor Basterretxeak egindako eskulturak. Bernardo Atxaga idazle handiaren luma ere kausitzen ahal da bertan. Gure ustez, Nafarroako Gobernua da entitaterik aproposena konposizio eder horiek guztiak, bai eta memoria bera eta parkearen funtsa ere, babesteko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sartagudako Oroimenaren Parkearen jabetza eskura dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sartagudako Memoriaren Parkearen mantentze eta zaintze lanak bere gain har ditzan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da harreman diplomatiko normalizatuak mantentzen ditzan Fronte Polisarioarekin.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita harreman diplomatiko normalizatuak mantentzen ditzan Fronte Polisarioarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuak Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dezan.

1975ean Mendebaldeko Sahara eta bertako herritarrak abandonatu bazituen ere, Espainiako Erresumak jarraitzen du Mendebaldeko Sahararen auzian erantzukizun propio eta ukaezina izaten.

Espainiako gobernuaren jarrera ofiziala da alde bien arteko akordioaren bitartez konpondu behar dela auzia, eta, teoriarik behintzat, bien arteko neutraltasuna mantentzen du. Nahiz eta zalantza jartzekoa den alde bi baino ez daudelako ustea (nekez dagoelako ukatzerik Espainiako erresuma ere auzi honetan parte dela), eta are zalantzarikoa den distantziakidetasunari neutraltasun dei ote dakiokeen, ustezko jarrera hori benetakoa izan dadin berbetatik harago erabakietara ere eroan

beharko litzateke. Azkenik, auzi honetan neutraltasuna bilatzerik ote dagoen ere zalantzarikoa da, zeren alde batean nazioarteko legeria bere alde duen Saharako herria baitago eta, bestean, berriz, estatu okupatzaile bat.

Kontua da, gainera, Espainiak alde bietan dituen harremanak oso direla ezberdinak. Marokoko erresumarekin –zeinak, okupatzailea ez ezik, Nazio Batuen erabakiak eta nazioarteko legeria betetzeari uko eginez auzia konpontzearen kontrako jarrera duen– harreman diplomatiko osoak dauka. Mendebaldeko Sahara, berriz, ez du aintzatetsi eta Mendebaldeko Saharako herritarren legezko ordezkari den Fronte Polisarioarekin ez dauka harreman diplomatiko normalizaturik, nahiz eta asko diren, munduan, urrats horietakoren bat egina duten estatuak.

Horri guztiari gehitu behar zaizkio azkeneko hiletan Magreben gertatzen ari diren altxamendua eta demokrazia-eskariak. Horien harira, Frantziako eta Erresuma Batuko gobernuak Libiako oposizioaren aldeko jarrera hartu zuten, demokrazia bultzatzeko asmotan, martxoaren hasieran, eta Europar Batasuna jarrera horretara bultzatzeko ahalegina egin zuten. Ekainean, Trinidad Jimenezek, Espainiako Kanpo Arazoetarako izandako ministroak, jendaurrean esan zuen Bengasiko matxinatuak Libiako herriaren ordezkari legitimoak zirela une horretan. Hori horrela, are ulergaitzagoa egiten zaigu Espainiak Mendebaldeko Saharako herriarekiko mantentzen duen jarrera.

Hori dela eta, erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko herriaren ordezkari legitimo bakarra den Fronte Polisarioarekin harreman diplomatiko normalizatuak izan ditzala.

Iruñean, 2011ko azaroaren 22an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko aireportuaren erabileraren bideragarritasun errealari buruzko plan bat presta dezan.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruñeko aireportuaren erabileraren bideragarritasun errealari buruzko plan bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, 2010ean inauguratu zen Iruñeko aireportuaren erabileraren bideragarritasun errealari buruzko

plan bat prestatzeari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iruñeko aireportuan larriki ari da jaisten azken urteotan bidaiarien kopurua. 2011ko lehen zazpi hilabeteetan % 16,6 jaitsi da kopuru hori, 2010eko lehen zazpi hilabeteekin alderatuta. Zehazki, Aenaren datuen arabera, 145.647 bidaiari abiatu ziren Noaingo aireportutik urtarriletik uztaile bitarte. Bidaiarien galera hori ez da eten, nahiz eta jaitsi egin diren aireportu- eta nabigazio-tasak, zeinak terminal berriarekin % 14 murriztu baitziren, lehiakortasuna helburu. Terminal berria 2006an planifikatu zen, eta 2020rako 620.000 bidaiari izanen zituela aurreikusi zen. Azpiegitura hori 1,1 milioi bidaiari hartzera hel daiteke.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Sustapen eta Etxebizitza Departamentua premiatzen du 2010ean inauguratu zen Iruñeko aireportuaren erabileraren optimizazioari eta bideragarritasun errealari buruzko plan bat egin eta Legebiltzar honetara ekar dezan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan jabari publikokoak diren era guztietako pista, bide eta errepideetan oztoporik gabe ibili ahal izateko.

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan jabari publikokoak diren era guztietako pista, bide eta errepideetan oztoporik gabe ibili ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, jabari publikokoak diren era guztietako pista, bide eta errepideetan oztoporik gabe ibili ahal izateko beharrezkoak diren neu-

riak ezartzea eskatzen duen ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Lurzoru ez-urbanizagarrian ibilgailu motordunen jarduera antolatuak eta zirkulazio librea arautzen dituen otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretua herren geratzen da herritarrek era guztietako pistetatik oztoporik gabe ibili ahal izateari dagokionez, alde batera utzita oinez, bizikletaz ala ibilgailu motordunetz ibiltzen diren.

Hori dela-eta, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan, herritar guztiak oztoporik gabe ibili ahal izan daitezen jabari publikokoak diren era guztietako pistetan –asfaltozkoetan, hormigoizkoetan nahiz lurrezkoetan–, bideetan eta errepideetan, alde batera utzita oinez, bizikletaz ala ibilgailu motordunetz (motozikletak eta quad-ak barne) ibiltzen diren, baldin eta Lurzoru ez-urbanizagarrian ibilgailu motordunen jarduera antolatuak eta zirkulazio librea arautzen dituen otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretuan ezarritako neurriak betetzen badituzte.

Iruñean, 2011ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da legeak ezarritakoa bete dezan Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari dagokionez.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita legeak ezarritakoa bete dezan Nortasun Agiri Nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikuluan ondokoa xedatzen da: "1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. 2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilerara ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du."

Nortasun agiri nazionala eta haren sinadura elektronikoaren ziurtagiriak ematea arautzen duen abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuaren 11.3 artikulua haxe xedatzen du: "Testu finkoak gaztelaniaz adieraziko dira, eta beste hizkuntza ofizial bat duten autonomia erkidegoetan ematen direnak, hizkuntza horretan ere adieraziko dira."

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuko -339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 2koa- laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, hizkuntza koofiziala duten autonomia erkidegoetan, gidabaimen eta lizentziak, gaztelaniaz gain, beste hizkuntzan ere egingen dira

Xedapen horien arabera, ondoriozta daiteke nortasun agiria eta gidabaimena Nafarroako Foru Komunitatean ematen direnean, testu finkoak gaztelaniaz eta euskaraz izan beharko lituzkeela.

Halere, ez nortasun agiria Nafarroan egiten den bulegoetan (Iruñean eta Tuteran), ez Probin-tziako Trafiko Buruzagitzan ez dituzte agiriak bi hizkuntzatan egiten, gaztelaniaz soilik egiten baitituzte, ezta interesdunek eskaria berariaz eginda ere edo interesdunak eremu euskaldunetan bizi badira ere. Paradoxikoa bada ere, Nafarroan bizi diren herritarrek agiri elebidunak lor ditzakete -ez soilik euskaraz, ezpada katalanez edo galizieraz ere-, beste erkidego batzuetako bulegoetara joanez gero.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ahal den eperik motzenez betearaz dezan Nafarroako Foru Komunitatean, nortasun agiri nazionala eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan egiteari dagokionez, abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuko 11.3 artikuluan eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuko -339/1990 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 2koa- laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

Iruñean, 2011ko azaroaren 23an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkie Erkidego Kurduen Batasunaren aurkako makroepaketan inputatutako pertsonei eta kurduen herriari oro har.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten dizkie KCK makroepaketan inputatutako pertsonei eta kurduen herriari oro har.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau helaraz diezaien, Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez, Turkiako erakunde eskudunei, zeinei dei egiten baitie berrazter dezaten herritar kurduei ematen dieten tratua.”

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñeko aireportuko terminal zaharrari erabilera emateko aukerei buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko aireportuko terminal zaharrari erabilera emateko aukerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari Anai Astiz Medrano jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sustapen eta Etxebizitza Departamentuaren eskumenen barruan: Harremanetan jarri al zara Sustapen Ministerioarekin, Iruñeko aireportuko terminal zaharra zertarako erabil daitekeen aztertze aldera?

Iruñean, 2011ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, AHTaren Cadreitako lanak inauguratzeari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, AHTaren Cadreitako lanak inauguratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari Anai Astiz Medrano jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 4an hedabideen bidez jakin genuen Nafarroako Gobernuak Sustapen eta Etxebizitzako kontseilari Anai Astiz Medrano jaunak Cadreitako AHTren obrak inauguratzeko ekitaldi formal batean parte hartu zuela. Hartara, Hau-

teskunde Legea urratu zen –izan ere, hauteskunde kanpainako lehen eguna zen, eta arauak ezartzen duenez, “debekatuta dago obrak edo zerbitzu publikoak edo horien proiektuak inauguratzeko ekitaldi oro, erabilitako izena zein ere den”–, eta ondoren ikusi duguna adar-jotzea izan da, gertatutakoa antzeppen bat besterik izan ez baitzen.

Horrenbestez, ondokoa galdetu nahi diogu Nafarroako Gobernuko Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariari:

Ekitaldi inondik ere hauteskunde usaineko hark, obren hasiera balitz bezala azaldu zenak, zer kostu ekonomiko izan du?

Iruñean, 2011ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egin dituen ekintzei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortzeko egin dituen ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz

Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Roberto Jiménez Alli jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2012ko Espainiako Itzuliko etapa antolatzeko batzorde instituzionala eratuta, ondokoa jakin nahi da; izan ere, batzordea azaroaren 22an bildu zen lehenengo aldiz, eta Roberto Jiménez jauna da batzordeburua:

Nafarroako Parlamentuak azaroaren 10ean premiatu zuen Nafarroako Gobernu Espainiako Itzuliaren Nafarroako etapetarako finantzaketa pribatua lortzera. Gobernuak zer egin du finantzaketa pribatu hori lortze aldera?

Iruñean, 2011ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspenei eta inbertsioari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, prestazio handiko trenbidearen zati desberdinak egiteko aurreikuspenei eta inbertsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Barcina andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Prestazio handiko trenbideari buruzko galdera, Gobernuko lehendakariak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan.

2012rako aurrekontuen proiektuan 134 milioi euro esleitu dira prestazio handiko trenbiderako. Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak urriaren 26an emandako informazioaren arabera, berriz, oraingo zati bat esleitu da (Cadreira-Villafraña), bigarren bat lizitazio-fasean dago (Castejón-Cadreira), eta ez da egutegirik ezarri zati berrien lizitazioari dagokionez, oinarriko proiektuak onetsi gabe daudelako.

Aurreikuspenen arabera, hasitako zatian 10-12 milioi euroko obrak egingen dira 2012an. Lizitazioan dagoen zatiak 40,6 milioi euroko lizitazio-aurrekontua du (12 milioi euro 2012an, lizitazioan egon bide den jaitsiera kontuan hartu gabe, % 30eko jaitsieraren ingurukoa lehen zatian). Gehieneko kasuan, bi zati horiek 22-24 milioi euroko inbertsioa ekar dezakete 2012an.

Hori dela-eta, parlamentari honek ondoko ahozko galdera egin du:

Zer irizpide baliatu da aurrekontuan 134 milioi-ko aurreikuspena jasotzeko? Zer inbertsio aurreikusitako da 2012rako trenbide-zati horietako bakoitzerako eta kontzeptu bakoitzerako, baturak 134 milioi euro egin dezan?

Iruñean, 2011ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Santiago Cervera Soto jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Santiago Cervera Soto foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Santiago Cervera Soto jaunak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamentari izaera

lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), "Partido Popular (PP)" alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Amelia Salanueva Murguialday andreak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amelia Salanueva Murguialday foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Amelia Salanueva Murguialday andreak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parla-

mentari izaera lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), "Unión del Pueblo Navarro (UPN)" alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Jorge Urdánoz Ganuza jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Jorge Urdánoz Ganuza foru parlamentariak foru parlamentari izaerari uko egiteko aurkeztu duen idazkiari dagokionez, hauxe ERABAKI DA:

1. Jasotzat ematea Jorge Urdánoz Ganuza jaunak aurkezturiko idazkia, non foru parlamentari izaerari uko egiten baitio. Foru parlamentari izaera

lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011-03-29ko 61. NAO), "Partido Socialista de Navarra-PSOE" alderdiaren hautagaitzaren barruan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera